Erref. kodea: LAF-402-022

Izenburua: Felix Etxeparebordaren bertso kaierra. Edukia: 395-423 zenbakidun bertsoak

Etxaparborda kantut.

Carnet de Chants basques

99

J. Etchefareborde

85

Mr Félix
Etcheparebordé
Armendaritz
(B.P.)

# FÉLIX ETCHEPAREBORDE KANTUZ.

# I

## Kafettoa Seminarioan

Airea : Ekhorittua, norat hua

I

Apezgaia ezta beti lo apezgaitegian.
Hori uste eztutenak eztagotzi egian:
Apezgaiak ezta bethi liburua begian:
Ezta alferik egiten kacha mahaiu hegian

II

Edarak su-garutik irakituz darasa:
« Errak, mutiko gaztea, othoi, ez hadi lotsa.
« Eynauk churi etchuratik, bainan badakik outa
« Eskoletan ikasirik: nigra sum sed forma

III

« Kafettoa, kafettoa, ongi zare mintzatze
« Holako hitz batek hatsa eztatzuia laburtze
« Bi azukre-puska beraz deraiz kitzut bihurtze
« Ikusiko duzu zombat zaitudan nik maitatze

IV

« Kafettoa! erraiten dut ja nere azken hitza
« Eznuke hunki nahi minki zure bihotza
« Bainan izarteaz baitzare iluna bezain beltza
« Izarrak bere argitik chorta bat eman bezaz

V

Berorik, urririk eta deskantsuki farririk!
Kafettoaren hartzeko bada bertze molderik
Apezgaiak joan behar du, ezkila aditurik
Sabela errerik ere.. laster urrup eta klik



## Sudur Luze

Airea Bidarraitarra

I

Ikusi duzu Iñaut, adichkide ona?
Handa hau gizona
Atchoen berdina
Zertako du muturra hoin bitchi egina?
Apal baitu burua, nor da hobenduna?
Nere ustez bederen, ez 'ta ez adina,
Ez eta edana;
Sudurraren hazta du ez aski arina.

II

Zer sudur gaitza gero bere zilokin,
Bere ilekin,
Bertze zerbaitekin!!!
Iduri dut leze bat bi sartzekoekin;
Edo mendi ttipi bat harrobiarekin
Sudur horen jabeak, egungo hotzekin
Zintzetan... fut zikin!
Ezta segurki aski hamar mukizekin

III

Iñautek daki nola ekun joko egin
Ez izanik sorgin
Sudur berarekin
Gizon tzarrek diote irri-trufarekin
Badakiela arta lerczi batekin
Sotzen sudur mokoa beharriarekin
Eztut hori jakin
Bainan hunkitzen du bai mihi puntarekin

3

IV

Ibere batzuk dute, eskualde batzutan
Ekartzen kopetan
Ageriki bistan
"Elefant" daritzate erdal-mintzaietan
Dena den, ezartzen dut Iñaut holakoetan
Bainan eztadin samur, sar atsegaletan
Toki baita hortan
Musu emanen diot sudurraren puntan

## Pip' eta Thu

Airea: ene maite pollita

I

Ikusi duzu nere liburu andana
Mahain baten gainean kenoan emana
Bainan hemen sakelan dut baliosena:
Zahar izan behar da «Jobs» baitu izena

II

Berak bere adina liburuak dio:
Izkiribu guzia denborak joan dio
Orai irakurtzeko deus eztu balio
Eztut halarik ere batere hastio

III

Huna nola maizenik dutan eralitzen:
Osto churi ezti bat diot atheratzen
Bertze ostoak aldiz bekaizti ez diten
Heien aldia ere laster zaie jiten

4

IV

Dena den, osto hura ontsa zabaldurik
Bainan echi puntetan aski bihurturik
Ezartzen diot, kasik arroila beterik
Hain maite dutan belhar idaño hartarik

V

Nere belharño hura eztakit zertako
Frantsesek deitzen duten: "la douce herbe à Nicot"
Dakitan guzia da on dela barneko
Jakitate aski da hola neretako

VI

Belharra dutalarik churiz inguratu
Eta nere milikaz estalgia lotu
Punta diotalarik pindar batez piztu
Egiten dut farririk ontsa... Pip' eta Thu

## Gilen

Airea: "Mendian zoin den eder."

I

Urtzak aditzen tutzu trichtez kantuzari
Gaua ederra dugu, Jaicho Jana-Mari
Ihes joaiteko, bilha nitzaitzu ethorri
Janzteko zurubiak dauzkitzut ekharri

II

Ene Gilen maitea, dudarik ez daite:
Burhaso tzar heiekin ni egon enaite!
Bihotz barne-barnetik zitut bethi maite;
Gure ihes-chedea behar dugu bethe

III.

Idek beraz gelako bi leiho ttipiak,
Nik ezarriko ditut gero zurubiak
Lo daude bazterretan herritar guziak
Akizerat gohazen bethikotz bi-biak

IV

Gilen, zurubitarat ez dakit zendako
Buruan heltzen ahal, ez ta ahalko...
Zathozkit laguntzerat! Flako nuzu flako!
Bakharrik igaiteaz egiten dut uko

V

Kuchean muthikoa gelarat igan zen
Bihotza bero zuen su handi bat bezen
Pilpil tarrapatataka zitzaiola artzen....
Liliaren biltzeaz zuen atsin hartzen,

VI

Bainan gelarat eta hautchet nor aurkhitu:
Bi gizon gothor, azkar, azoki mahkatu.
Bi behavi muthurrak diozkate moztu:
Gilenek Akizerat bakharrik behar du.

## Itsastari Gaztea

I

Ukhin jauzikarien artean
Itsas-untzi handia bazoan
Haurra lehen aldikotzat jokan
Ama hor, nigarrez, leihorrean



Errepika
— Othoi, ama, ez nigarrik egin
Oraino bizeko gira elgarrekin
Ez latz orroaren entzutearekin
Herio beltzeak ezmu nahiko berdin
Ikus arte, ez nigarrik egin.

II

Hola ari zitzaion amari
Untzitik agurka Jose-Mari
Ur phusterdian, tita f bat iduri
Horra nun zen untzia itzali
Errepika
— Othoi, ama, ez nigarrik egin!
Zion bethi haurrak so gocho batekin,
Ez latz orroama entzutearekin:
Herio beltzeak ezmu nahiko berdin
Ikus arte, ez nigarrik egin.

III

Ama nigarrez etcheratu
Orroama gau hartan aditu
Bai ekhaitza, zen betbetan phiztu
Eta itsasturiak suntsitu
Errepika
— Othoi, ama, ez nigarrik egin!
Zion gaicho haurrak ithotzearekin
Ez latz orroama entzutearekin
Herioak biak nahi gitu berdin
Ikus arte, ez nigarrik egin

## Nere makila.

I

Begistatua nuen aspaldi mendian
Ugizpur ondo chuchen bat sasiän erdian
Handitzerat utzi dut eta harrekila
Aurten egin dut nere.. eskualdun makila.

II

Bi erroden gainean joaiten ez ikasi
Burdin bioktan, aldiz, sabela nahasi
Baina nun dut karosa? nun dut berilila?
Oinez beti banoa... eskuan makila

III

Kana delako batzu hirian baitezte;
Hoitarik gehienak deusguti, nik uste
Eztut hoik bezain herbail nik nere kabila
Eskuan dudalarik, eskualdun makila

IV

Askotan ikusi tut ibilki herrian
Aitzindari ernhak ezpata gerrian
Bekaizkia ni ganik urrun joan dabila
Zeren etat baitut nik, eskualdun makila

V

Igandetan goiz-goiza, chamarra emanik
Etcheko andreari agur bat erranik
Butzuin eta oihuka dorreko ezkila
Ni banoa harturik.. eskualdun makila



VI

Nere sakelak nahiz ontasuna miatu
Jin zait behin gizon bat. Bainan zer gertatu
Seguriki eztu erran bateréz makila
Ibiltzen eskuetan.. eskualdun makila

VII

Jaunak begira neza luzezki munduan
Bai eta ezar gero betikotz zeruan
Orduan, hauk maiteak, otoi! ~~net~~ nerekila
Emazue hobian, eskualdun makila.

VIII

Gero zeruetako mendi ederretan
Eta Zeledoietako izar churietan
Jaingoaren alkitik han urbil-urbila
Ibiliko naiz beiden eskuan makila

IX

Begiztatua nuen aspaldi mendian
Ugizpur ondo chuchen bat sasien erdian
Handitzerat utzi dut eta harrekila
Hemen eginen dut... zeruko makila

## Zorionkotaria

Airea: Zurraren pean.

I

Lehen lilia nuen bizian
herritik juan nintzanean
Gazte lagunen dantza pollitak
utzi nituen etchean...

Bai ondorea, bai ontasunak
denak utzirik joaitean
Alegeraki, giza-gaichoa,
esperantza bihotzean
Zorion-keta abiatu niz
bide-makhila eskuan.

II

Ustekeria berezi batek
baninderaman beilari
Misteriozko dei batek behin
hitz hauk zaizkitan ekharri
— « Abil, maitea, Iguzki alde,
jarraik hadi bideari,
Urhezko athe baterat eta
sar hadi ~~bideari~~ hel bezain sarri;
Hor lurra zeru bilhakatzen duk
adio zorigaitzari! »

III

Aratsa heldu, goiza ere jin
sekulan ez niz gelditu...
Uhaitzek hautsi dautet bidea
mendiak zaizkit etsaitu.
Leize beltzenak, lur handienak
nolazpeit ditut garhaitu;
Udako bero, neguko hotzak
denak ichilik paratu..
Bainan nik nahi nukeien lurra
bethi bichtatik zait galdu



IV

Ibai eder bat aurkitu nuen
Ekhi-alderat zoana
Hartan fidatu hori nuela
hel biderik haberena:
— « Othoi urhezko athe hartarat
eraman nezak, uhaina! »
Uhain urdina jauzian-jauzi
badoa bethi aitzina..
Orai itsaso zabal erdian
nago harek eramana

V

Eskuin bezala ezker so nago
bi begiak ahuriturik;
Ez dut ikhusten muga hartarat
ninderamaken bidirik
Hasten bezain gibel niz eta
deus ez dezaket igurik
Zerua naski goraegiko dugu
nehun ez hunkitzen lurrik
Lur huntan nehoiz ez da sortuko
hango zorion osorik

## Bizkaiburuko Chemartin

Airea: Ene maitea, barda nun zinen

I

Bizkaiburuko, seme gaztea
  Chemartin gaicho maitea
Nor atrebiko duk erraitera
  Hire gaitzaren trichtea?

II

Chemartin horek udahastean
  Liliak dathozinean
Aurkitu zuen lore bidean
  Lore bat gorde-gordean.

III

Iri pollit bat zion ohartu bihurtu
  Lorettto hura ohartu;
Bertze irri bat ordutik sortu
  Eta biek elgar maitatu.

IV

Gachina zagon hautchet Urruñitzen
  ~~Itek~~ Itchka salhu eder bat zen
Amari zion gau batez etchen
  Erran nor zuen maitatzen

V

— Othoi, alaba, ichilik hago!
  Zer demuntre dun holako?
Guk ez diagun ez onetsiko:
  Chemartin apalchei dago.



VI

— Oi ama, ez naiz diru gosea,
  Deusik etzait ohorea
Amodioz naiz ezin asea
  Hartan bainuke aisea

VII

— Haurra, errana diagun ezetz,
  Alferrik hago nigarrez…
Aseak gaituk hire auhenez
  Bakea eman arabez…

VIII

Itsas ondoan pidautzarekin
  Zagon gau hartan Chemartin
Hurra Gachina zitzaiola jin
  Dena nigar eta chotun

IX

Harroka zilo zabal batean
  Bibiak sartu orduan:
— Gaicho Chemartin, ni naiz trichtean
  Baimenik ez baitut izan

X

— Zer derasazu? Zer ez baimenik?
  Gezurra dela diot nik
Ez duzu nahi naski jagoitik?
  Hauteman duzu hoberik

XI

— Bai nahi zaitut behi bethiko
  Hartu ene senartako

Ene aitamak suntsi adiko
 Zurekin naiz ezkanduko
XII.
Ziu egiten dut hemen berean
 Jainkoaren aitzinean
Zurea nago hor itsasoan
 Uhinak ichil artean..
XIII.
Ordu berean itsaso tzarra
 Jauzi da zoko hartara
Uhiņ batean itho baitira
 Hoi biak uste gabera
XIV.
Haurrak, aitamen heriotzeaik
 Etzazuela ignirik
Zuen hiltzea, Jaunak nahirik
 Ethor ditake lehenik

## Egungo moda.

Airea: Chorittua, norat hura

I

Guk zaharrek badakigu lehengo moden berri
Eta bethi krinolinaz egiten dugirri
Harekila ipurdia baitzagon izigarri
Bainan egungo moldea eztea irringarri?
Bai segur eta nahi dut hartaz kobla bat jarri.



II

Orai zangotarik hasiz zoin bichti andereak!
Galtzerdiatzat badauzkate armiazno sareak.
Agertu nahi dituzte beren makil meheak
Edo mehe ezpadire, eztituzte bereak
Bainan okhalez eginak, beraz sitzigabeak!

III

Neskatchak urte hanietan eztirade gizentzen,
Gorriko hertsitasuna gehiz dute bilatzen
Hortakotzat ~~eztute~~ mahainean eztute
 Gitsik hartzen
Alabainan jan gabetan ezpaitire handitzen
bakoinak dituzte prok zehe batez luzatzen.

IV

Eztute bada chahutzen irin hainitz jateko;
Bainan noiz izanen aski mahelen churitzeko
Bestalde gorria behar beren ezpainendako
Hek oro garesti dire; eta horra zertako
Eztuketen aski diru jaien heineratzeko

V

Zaiak dituzte goregi, urhil belaun mokotik.
Jauntziak lorioz behera, urrungi lepotik
Ez ote dute andereek, nonbait gorde, arditik
Gehiechago erosteko arropa-gai beretik?
Ala gaichoek dutea zerbait eskas burutik

VI

Gainez eta azpiz biluz egotu behar eta
Hotz batean bizi dire. Jainko Jauna, zer
 planta.

Bulhar-saleketan gaindi beti haize-kurrunta
Hortaz geroz mafrundia eta gero marranta
Eta ondikotz hiltzeko zer nun gaicho dakita?

VII

Uda neguak aldizka ari diren bezala
Moda eragaiten zaiku lur huntan hala-hala:
Sartu eta, ezker-eskuin zenbait orduz dabila
Bainan gero suntsitzen da trufak biltzen duela
Eta moda berri batek jotzen du atabala

Eg

## Chanbadin

Airea: Lurraren pean.

I

Eliza ttipi chahar beltzetik
  durhenaz dugu ezkila
Hil herrietan egin berria
  bada hobi bat zabala
Aheidan eta gizon-geiari
  nigarra dariotela
Horra etzanik etche bateko
  lore zenaren itzala:
Herriko neska eder maitena
  betiko loak hartua

II

Lagun gazteak, irriak oro
  joan zaizkitzue harekin
Hoi bazagozte, begiak busti,
  bihotz-muina huts eta min



Lili ederrez egin zozue
  korona bat elgarrekin.
Jainko maiteak sekulan norbeit
  ospeaz gei badu egin
Ez othe da ba zure arima
  hain garbi zena, Chanbadin

III

Artzaintsa. jauntziz emanikako
  aingerutto bat iduri,
Etche landetan ikus zitaken
  gocho bezain maitagarri:
Ez dako bada uraz leitzerik
  nehoiz eman lanari!
Miraitzat ere ezeka zuen
  zilharrezkorik ez nahi...
Edergailutzat aski zitzaizkon
  phentze-sasiko bi lili!

IV

Bidean lehen egin pottit bat
  bazuen gerorendako
Bainan herabe zauzkan begiak
  norapeit ernaik aduko
Bai gazteria ondotik zuen
  kartsua, dena behako
Ordainez so bat, so argitu bat
  nehori egin ez dako
Baizikan here gizon-geiari
  Jainko maitea lekuko.

V

Ogi-jiteko bazkari batez
Ellande zen buru-hastu;
Bazkal ondoan bere chapela
lauerako berriz hartu
Oro chingola nabar batzuek
edertua kausitzen du
Muzier beha jartzen da eta
han zen ahalbadin gorritu.
Geroztik zuten biek hitzeman
bizitzeko eskuz-esku.

VI

Ellande, orai hire ametsa
histu zaik eta itzali.
Ezkila dangek egiten dauztek
bihotzean ehun zauri
Bainan adizak zuhaitzetarik...
zonbat hegaztin kantari!
Hek bazakitek zendu gaichoa
ez dela nigarrez ari
Eta lotarik behar duela
goiz argi batez atzarri!

[signature]



## Kantatzera nihazu

I

Kantatzera nihazu une jolie chanson
Hura egin duena est un brave garçon
Deithurik izandena dans une garnison
Haren behar partitu bientôt de la maison

II

Moi je suis né en France à Eskual Herrian
D'après ce que je pense Sarrance herrian
Bientôt c'est la partance guazen gustian
Faire la pénitence Errechimendian.

III

Frantzian sorthu denak garde ses intérêts
Nahiz soldado denak ne les a désirés
Ez ichaldui denak aux seins de nos armées
Ez ditazke hobenak les jours qu'il doit passer

IV

Il ne faut pas en faire ez odol gaichtorik
Pour moi je n'en faire guère hoien oron gatik
Nous avons eu la guerre nahi gabetarik
Elle va coûter bien chère en istoz segurik

V

Ils en ont du courage Bochen hiltzeko
Qu'ils s'en aille en rage ez har itzultzeko
Pendant tout ce carnage miseria frango
Que le ciel soit pour gage hilen direnentako

VI

Yeclak utziko ~~deraut~~ dauku de tristes souvenirs
Deuck zombat kolpatu nous ~~en toujours~~ avons vu venir
Beste hainitz baratu que l'on a fait périr
Zothiak condenatu à ne plus revenir.

VII

Je ne voudrais pas faire solera penarik
Mais je ne puis me taire erran gabetarik
Que j'ai perdu un frère gerthe triste horik
Après 10 mois de guerre zebait ikhusirik

VIII

Ardietsiko dugu la paix la liberté
Bochen naguziokia déçu dans ses projets
Jakin ukan balu ils s'en seraient gardé
Biba Bochen eskia et les poilus français

IX

Gerl'akhabatuekoda sans l'avoir regretté
Azkenian irazjko l'ayant bien mérité
Etsaia izanen da pour ~~toujours~~ jamais écrasé
Frantzia bizitzeko dans la tranquillité

X

Guaneu gureniay nous ne les reverrons plus
Etcheak bizik ordian de ceux qui ont vécu
Gausa zite bakean ~~les boches~~ c'est écu qu'il a vou
Tranquil paralisian les boches sont battus

XI

S'ils nous ~~ont~~ ont fait la guerre ez dute holerik
La France notre mère ez date galdurik
Nous vengerons nos frères bai lotsa gaberik
Car la mort n'effraie guerre Eskualdun semerik



## Auné crimé

Accourez tous gens de Ulendiondé
Et d'Hasparren aussi
Pour entendre le récit
D'auné crimé iabominable
Qui bient da être commis
A Athasquet non loin d'ici

II

Il existait une famille honorable
Du nom d'Oxarango
L'assassin venant de Louhos
Il avait un ~~ueo~~ begi motz
Il est venu à Hasparren
Y accomplir sa noir dessein

III

La gendarmerie de Espelette
Prébenu de son forfait
Louis a mis la main à la colété
Et l'a obligé de le suibré
Ez zen content halake
Il la fichu à la prison de Lekuiné

IV

La cour d'Assisé de Akizané
Bient de le condamner
A être guillotiné
Mais le jury dans sa clemencé
Kantatu du Garuzé
Pour qu'il a le coup coupé

## Arnoaren alde

I

Kantu huntan sujeta
Ez daiteke utz, harenta
Nehurk ez baitu parerik
Arno ona iretsi
Haren fama goretsi
Behar othe da bertzerik

II

Ene zintzur zabala
Ahoz lethe bezala
Etsitunt egarri ddukat:
Haren arnoztatzeko
Enahu iritzazke zi dukat
Gero kantuz artzeko

III

Arno eder gozoa
Ene bihi lazoa
Othoi fleitean emazu
Ene gogo zolatik
Eta bihotz erditik
Kobla bitchiak pitz aitzu

IV

Dugun edan anaiak
Gure lagun gaztiak
Behar ditugu harritu
Berak barnik gelditutz
Gure hatsa sendituz
Nahi nitazke horditu

V

Bainan zer da ikhusten?
Etz dut amets egiten
Yotz batez dago gelditurik
Adio bake hosegu
Oro dantzan ditugu!
Jaz pu delmak hartarik

VI

Itzulika dabiltza
Buru eta bihotza
Biak hasteko ni baithan
Etzarak nitarik kampo
Bertze izaite frango
Denak jauzika biruna

VII

Etche hoi zer pittika
Eliza chingilika
Pago bizarik fandango
Uiuri haien lastera
Ago numbait kadera
Nehun lodunik ez dago

VIII

Oro itzul inguru
Hango mendiak sablu
Hango mazela handiak
Nola dira lekartu
Gaizo kasko-churetu
Mendi aitato bitziak

IX

Mendi hoick hartarik
Hegiaino betherik
Arno itsaso bedera
Dena husten balute
Ez lagozke potente
Gure gozoki legira

X

~~Jesus zeraut~~ Negu edo larrazken
Gainen eder litazken
kasko gorriak dirdiran
Mendi hoien jauziak
Zango gizen hartziak
Pollit litazke airean

XI

Jesus zer dut nihaurek!
Uzten naute zangoek!
Berma gaitezen elgarri
Jainko Jauna milesker
Zeren naizen erortzer
Bainan.. Bainan ez erori

## Ni hiltzen nizanean

~~I~~

~~Ni hiltzen nizanean~~
~~Tra, la la, la, lo, la, la la~~
~~Ni hiltzen nizanean~~
~~Ez hai ehortz elizan (bis)~~

~~II~~

~~Ehortziren nizu~~
~~Trala~~
~~Ehortziren nizu~~
~~Ahoz dutchulura (bis)~~

~~III~~

~~Sangoz bortarat eta~~
~~Tra la . . . . . . .~~
~~Sangoz bortarat eta~~
~~Ahoz dutchulura (bis~~

~~IV~~

~~Dutchulua eroriz~~
~~Tra la . .~~
~~Dutchulua eroriz~~
~~Badukel zer edan (bis~~

I

Juanden larumbat aratchian
Ni matiaren etchian
Segur uste gabian
Bertsu berri berriak
amodios hantiak
eman ginditian
Bi.bien artian

II

Corte egin nezake
Tollita, ez bazine
Sobera gaztche
Nik zuri eman promesak
Ala egin karesak +
Sala nitzazke
Beldur bainindazke.

III

Izar charmegarria
Pollit eta libia
Erradazu egia
heian plazer ziruenez
Ni zure faltaz hiltzia
hola nai martia
Emazu guardia

VI

Jendek erraiten dute
Zureta enetako
hala eztena frango



Bainan ez dut achalarik
badakit zihaurek erranik
Zizela enetako
Hiztuz bertzendako

IV

Izar charmegarria zira
Eder eta gazte
Ainiz berthuté suerté
Ezagutzen daitzuté
hori hala daité
Segur izan zaité

Bai alegatzadanik
Nitaz kontetatutik
Othoi har nezazu
hilnahi ez bainizu

VII

Mundu huntako barbeak
Bai eta medikuak
Zer dira enetako
Turgak ala sangriak
belhar fer freskoak guziak
direla flakoak
ene sendatzeko

# La vie du Seminariste.

## Churiko.

I

Izar erne ala bano
Eri handi ala sano
Kaiola huntan hizeno
Jinen zaizkit atheraino
Bortz orenak jo direno
"Benedicamus Domino"

II

Ezbahiz nagi ez auher
Ezeta loari aiher
Izar othoi zer eta zer
Itzul eskuin eta ezker
Bainan ihardetsak laster
"Deo gratias" milesker.

~~III~~ IV

Benedicamus Domino
Nahiago jeiki baino
Nik hemen egon oraino
Goarik hantchet zokoraino
Ohean sartzen naiz barno
Lagunak "altza" moreno

III ~~V~~

Laguna milesker zuri
Zeren nuzun iratzarri
Bainan nizi zaut iduri
Ez othe da ba ageri
Naizela biziki eri
Jeikiko naiz beraz sarri

V

Eta buru kutak aldiz
Larrichago jeikiko hiz
Laguna ari zauk berriz
Hi jeiki arrazi nahiz
Errak bi begiak hetsirik
"Deo gratias" Halabiz.

VI

Benedicamus Domino
Nik ez diat egundaino
Nihun ikusi oraino
Alferragorik hi baino
Jeiki hortik ordu deno
Benedicamus Domino

VII

Lorik banuela aski
Bakeare maite naski
Egoitea zela gaizki
Laguner behar jarraiki
Ohe ~~chokotik~~ gochatik naiz elki
"Deo gratias" Jauk jeiki

VIII

Ohetik eginik jauzi
Tarrapataka ikuzi
Sotana lasterka jauzi
Zintauchun ezin kausi
Pumpaka laicharka jau
Sepoa ez baitut hautsi



9\. Sartitzeko tenorea

Barne handi batean jadanik ondikotz
Apez gaiak bilduak, arpegiak zorrotz
Bihotza bero, suhar, bainan tabla hotz
Belaunfko othoitzean hasiak ~~ondikotz~~ oraitik

10

Azkenik etortzea zaut herabegarri
Argitu ditut hiru ekun begi gorri
Nere lekurat nute ~~manchko~~ zaln egorri
Eta denek bezala belaunko ezarri

11 Bidarraitara

Oren lauden batentzat hantchet ~~e~~ belauniko
Errak to jaultiko
Etzauka luzechko!
Mende bat bezain luze neretzat hasteko
Egia erran eduk baitez pada flako
Bainan laster akitzen! Hona to zertako
Beha nagok noizko
Tenorea jinen den handik chutitzeko

12

Usu bezain ardura seiak lauden gutik
Oraino ez gaitik
atchemaiten chutik
Gure buruzagiak othe dik buzutik
Hantchet zagozk ~~jerran~~ gauzoa gabe tutik
Kasu egin dezala hola lokartzetik
Gaziak engoitik
Chutik litazke; Jauna bai gogotik

13 Chouttza norat hura

Belauniko baino aise nik chutik nahiago
Bainan zorigaitzez bethi halaere lan frango
Nakiz ~~zorigaitzez~~ onak eman daitzan Jainko Jaunak
Ai Jainko
Noiz othe jarriko ziren, ilundan hautchet nago

14

Sei orenak jo orduko, brau! denak betan jarri
Bainan loa berchala othoitzari jazarri
"Ni banuk, hi bahiz" biak, ordu bat so elgarri
Ondikotz loak othoitza kampo bidor ezarri!

15 Abiso Maria

Othoitz gaichoa errazu
Norat joaiten ziren zu dituzu
Kampo hortako bazterrak oro ilhumbez beteak
Ethor zaite barnerat, galduko zira kasu iz...

16 Sartitzeko tenoria

Mezako tenorea huna zon den jina
Urrikaltzeko baita fida lo dagona
Lo on baten uzteak emaiten daut pena
Bainan gaitzik aski baduket egina

17

Lurraren pean sar nindeitcke, Jainkozure ahalgez
Zure oinetan eta ahuspez hementche nago nigarrez
Lo on bat egin dut zorigaitzez, othoizik aldiz baterez
Orai hor nago atsegabetan, oi barkamendu beharrez
Barkamendua ardietsiko meza hobeki entzunez"

18



Ikusten duzu goizean
Mezatik atheratzean
Mahaintto baten gainean
Dupin ttipitto zorro lodi bat, zali pollit bat menean
Salda itsu bat ~~baru~~ barnean
Hirur pitchar hur aldean
Hau jaten dut nik bakean

19 Suiten ari nuzu

Mehatzen ari nuzu apezgaitegian
Arduna dutalarik zinta bat gerrian

20 Churiko

Apezgaiaren malura
Bitche guzia barura
Bi berga luze sudurra
Eta zeke bat zintzurra
Barnetik hurbil hezurra
Zeren den toki chuhurra

21 Gruten

Apezgai gehienak seinale dirade
Mathel hezurrak idor, kolorea berde

22 Aitak eman zerautan

Ez dut kampañar gisa gosari gizena
Zingar zafla batekin arrotze gizena
Badut kazina
Meke egina
Porda arrangura
Eta arno churitik "ithurriko hura"

23 Churiko

Zerden gizona haatik
Haskari horen ondotik
Gosea izana gatik
Gelarat beldurz geroztik
Ordu da naski endoitik
Lanari lotzen gogotik

24 Voir page 3

30 Irrintzina

Burua akitua, sabela izerdi
Azkenian jin zaut nolazpeit eguerdi

31 Churiko

Atzo bezain gose egun
Eta estomaka legun
Egia erran dezagun
Hoin legunik ezda uchun
Bazkaiterat noa tan, tun,
tin tan "sicut ad tormentum

32 Mendian zoin den eder

Egunak badaatzi egunek ondotik
Bai eta bazkariak goziaren ~~ondotik~~ gatik
Bainan so-bera elgar iduri haatik
Kozinak eta saltsak ithuri beretik

33.

Mendian zoin den eder eper zango gorri
Holako chizitik hemen ez da sori
Idi gibel beltzetik daukute ekarri
Ez baduk hori maite tira zak behari

34 Aitak eman zerautan



Barne haroti batean, oro gira biltzen
Eta bazkariari gogotik naiz lotzen
Gero zaut hasten
Bihotza hozten
Agortzen zintzurra
Laster eskura nio.... auzoko ephorra

35 Ichauzpeko alaba

Nik badakit arbasoek erranik
Arno onak ez duela kalterik
Orai ere balin banu hartarik
Edan nio ~~basoa~~ basoa betherik

36 Kaiku

Gure arnoa arno ona da
Kolore ona du.... auzoan
Edan nezake nik ere bada
Balin banu bai gostian
Errazu, badautzu
Zer uste duzu gerocho ere
G~~ero~~abe bizeko direla gu
Ni hasteko ez, beraz zu
Nik bethi Freskachoik tabernakua
Sotoan izanen dut arno gozoa
Ai zer kontetu Ai zer alegre
Eskainiko dautzut Lagun gaichoa
Arrantzechuak eta..... kaiku arnoa

37 Irrintzina

Bazkal ta berehala min duti sabelan
Hea! ikusi zerbeit badutenez gelan!

38 voir page 4

43 Choritua

Kafea murrufaturik ostelechen, atzegun
Lerro, lerro bagoatzi apeztegitik zuzun
Bidez mide, nahas mahas, kaskoin eta eskualdun
Ba bainan bareatu eta aise gira ezagun

44

Ezagut errechak gira, ezen heldu orduko
Kaskoinak utzirik laster gabiltza chokoz choko
Toki bat nahiz aurkitu deskantsuki egoiteko
Deskantsu handienean musian hari hartzeko

45

Egun batez elkhez elkhe, orratzetikan hari
Lagun andana bat ginen, gehienak muslari
Lan bezik ezin ari eta guziak nahi ari
Nor behar zen jokatu galdatu erregeri

46

Haitz baten pean ginuen leku ona hautatu
Sorzapil ihatzo, ethek gintuzten kukutu.
Hegaztinek zeramaten nahi bezenbat kantu
Horiek guziak hola musari ginen lotu

47.

Tiarres adichkidea nerekilan erori
Nere lagunari nion erran ongi ethorri
« Nik zainduko diat Manech, hik kasuizat Bekori
Egia haizu dut bainan gezurra ere hori

48.

Partida hasi zauskuten botz tantoz zimitoka
« Tiarres ez izi athoi, beldurrik gabe joka
– a Ezak to Manech, zangoak othe dakitzun koka
– Beharbada fritsik ez dik, handichkotik kalaka

49.

« Ikhiri kartak ikusirik kasumak keiniari
« Jokoz hautuak direla errechki duk ageri
Ttipi hori azkar dia, handia aldiz eri
Bainan ez gitie segur ezarriko acheri!

50

Guk lau hamarreko hurbil eta hek azkena
Biak hor dago utziak, pareak ba errana
« Orai goazen polliki, oraikotz diuk jaina"
Oi zertako behar zen jin orduan jin zaukuna!

51.

Hautekhetan ginaudelarik outsachko elgarri
Chaztu gabe nausia zaukun harat ethorri
Nehaunn gertatu ez dena gertatu zu lauri
Lau muslarietarik lau egon ziren acheri!

52

« Tiarres nere laguna behar dautak barkatu
Amets bat zian egina, hura diat kondatu
Gu biak acheri! Ez duk behin ere gertatu
Amets tzar hori eginik hobe bazi nuk lathar

53 ~~Bidarraitar~~

Bertsu tchar hau jin zaizkit nolazpait burura (Gaztetasuna eta zahar)
Ainitzek erranan dute hau eta hura
Afiz gaientzat chailki naiz ni arrenguna
Miseria handian dirade ardura.

Yezoko mentura
Nik banu segura
Egin nio lura. Hoikien gostuna
Zaharren gaztetzeko baginu moda.

54 Chorittoa

Aski tto badut erranik adichkideak gau on
Ibilarik ere apezgai nahiago dut egon
Zu baino urosagorik nehor othe da nihon
Irri onik egiten dugu ez teak hala beon

## Amodioa

Amodioa zoin den zoroa
Mundu guziak badaki
Nik maitetto bat izakieta
Beste batek eramaki
Jainko maitiak gerthadezala
Enekin baino hobeki

II

Azken bestetan egin nituen
Izarraren ezagutzak
Denen artean ageri ziren
Haren begi urdin beltzak
Irri pollit bat egin baitzautan
Piztu zautan esperantzak

III

Geroztik ere mintzatu gira
Heia nahi ninduenez
Harek baietz bietan erranik
Pentsa kontentu ... nintzanez



Ez zuen uste haren agintza
Bethea zela gezurrez.

IV

Orai bihotza hurthua daukat
Gatza urean bezala
Izar onaren argien ordain
Izigarriko itzala
Ohoin tzar batek fuanik
Nola maiteko ikoatsala

## Dónadoa edo muthil zaharra

I

Bakharrik bizitzeaz unharatua frango
Ohede zerbait banuen lagun bat hartzeko;
Bainan orai andreak zembat ez dut behar
Ez, ez nahiago dut egon muthil zahar

II

Herrunka guzietan estatua gaindi
Egun oroz baitugu mila moda berri
Hainbertze gastuekin, nola mezraian sar?
Ez ez nahiago dut egon muthil zahar

III

Grisetek utzi dute mokanes pullita
Ustez hobeki dohan lore dun bancta
Zer boneta buruan neskatcha bat nik har
Ez, ez nahiago dut egon muthil zahar

4.

Sedarian sarthuak, printzesak iduri,
Fy! egiten diote soin telefonistari
Horrela uste dute zembait choro lokhar
Ni ez bainaiz logale, nago mutil-zahar

5

Handick badakite musian kantatzen
Bainan badakitea botoin baten lotzen
Dendari jornaltan zembat urhe zilhar
Ez, ez, nahiago dut egon mutil zahar.

6

Ugirail baten aldean, goizetik josiak,
Han dituzte mirazten adrelluntza guziak
Egun gauza bat eskas, berze zerbait bihar
Nor ez da lotsatzeko? Gauden mutil zahar.

7.

Zenbat senhar mundoan, gaizki gerthatuak
Zefihoraino sasian direnak sarthuak
Orai egiten dute berantegi nigar
Hainbat gaichto berentzat; egon mutil-zar..

8.

Ezkontzako bideak, legun eta garbi;
Urrundik begiratus, du belus iduri;
Bainan da hurbiletik, dena harri, bizkar
Nola bainaiz latsuzko, nago mutil zahar.

9.

Seguir da deithuko nau, batek galai hotza
Behar bada bertzeak harpiagon zikhoitza



Laidoen jasaiteko senti baitut indar
Askoz nahiago dut egon mutil zahar

10

Oi hauche da mundua, gizon gaztendako
Orai andreak ~~athik~~ dire jauntzi larrutzeko
Ez othe da, diozu, chuhur zombait bakhar
Ez nezake zin egin, gauden mutil zahar

11

Hobeago zuerentzat othe da zoria?
Zuri nago, neskatcha, gehiegi jarria
Utzatzu sobraniak, izanen da senhar
Nor-ez, egonen zare bortchaz neska-zahar

## Gerla

Gerlatik ~~urbunt~~ gaitzatzu
Jesus bakea ez emazu (bis)

I

Sinhetsitu ziren joanden gerlan
Aneia onak aiten ondoan
Frantziarentzat zori
Odola fransoichuri (bis)

II

Utzi zituzten beren herriak
Utzi bethikotz beren etcheak
Azken behako batean
~~Ut~~ Nigar chorta bat begian

III

Haur ttipittoak, finki lothuak
Nigarrez ari ziren gaichoak
"Norat zoazi erazu
Nahi zitut segitu. (bis)

IV

Amatchik luzaz behatu hari
Amak tiichtiki erran haurrari
"Aitari potta emazu
Adio erran zakozu (bis)

V

Eskual Herritik urrutzo handian
Gizonak joan ziren orduan
Gerlan erdiak eroi
Gibelerat ez ethorri (bis)

VI

Ni aldiz ni aita bezala
Behar othe dut ikusi gerla
Segitu harea bidea
Bethikotz utzi etchea (bis)

VII

Holako gauza izigarritik
Libra gatzatzu, Jesus, zerutik
Bakhotrik duzu egiten
Nahi duzuna egiten

Ketm

## Campaguatarrak (fandango) 

I

Campaguatarrak gira gu
Ez dezakegu ukhatu } bis
Bainan hiritarrek bezen ongi (bis)
Soinua jointen dugu (bis)

II

Hirian dira bi gauza
bia gustatzen zaiztanak } bis
Arno churitto gochoa eta (bis)
Ogi churi freskua (bis)

III

Campaguan aldiz badira
Beste bi gauza hobiak } bis
Aire sano osagarri eta (bis)
Neska matheila gorriak (bis)

IV

Ene maite pollita
Zu nun zira bizi } bis
Juanden aspaldi huntan Maïtia
Etzaitut ikhusi
Ez dazu ene Maïtia
Seguir pena guti

V

Palazio eder batian
Haiz baten gainean } bis
Ez da haizerik zo sartzen Maïtia
Maïtia ez dabilanian

Ez da euririk sartzen Maitia
Maitia Etcheberrian.

VI

Aldi batez erran nian
Nik zure amari } (bis)
Beira zitzaila zu eneteko
Hitzerman gabe nehori
Izan zaitezen ene emazteia
Bagi bizitzeko

Ikhus

## Neure kartiera

I

Esker eta ohore gure Jainkoari
Lekku eder batean baigaitu ezarri
Etzaunalde ditzen da kartiezgno hori
Alde guzietarik mendiaz inguruan
Hora ser gatik ez den nihundik ageri

II

Marchkaren mazelan horra hor phentzea
Jain gaineraino da kabalaz bethea
Negua yin denko hor da arthaldea
Ardiek hor zaiote lakhet alhatzea
Horgo bazkak baduke segur eztea

III

Phentze horien zolan zabal et ordoki
Landarik ederrena hor ditazke aurkhi
Hoick emaiten dute artho eta ogi
Neguko egunetan baditake arbi
Nasaiki asetzeko ardi eta behi



IV

Iguzkegiko maldak bere aiphamenak
Hor aurkhitzen baitira mahats ederrenak
Molkhotz betheak tuzte guziek aihenak
Nahi baditugun guk itturri hotch onak
Hura aise uzten du arnoa duenak

V

Mahasti gaineko larre harkadia
Burunaino dago kofoinez bethia
Dudarik gabe hor da lakhetzen erlia
Udarekin bahian dakharke umia
Eta berriz neguko guretzat eztia

VI

Etchetikan lekhora lerroka fruituak
Sagar, intzaur, mizpira, adan, gereziak
Merchika eta pikiko udare guziak
Bihurretan zabalik gaztena
Gure aitzineneck arthaz landatuak.

VII

Arbol hoien artean polliki gordeak
Churigorri egoitza parerik gabeak
Horiek dira zinez eskualdunetcheak
Haitan gostura bizi dirade yendeak
Nola bizi baitira kofoinean erleak.

VIII

Etchetikan lekhora kornalea arte
Alhorle hortan bada cherri eta urde
Gainean aldiz lapin, oilachko, ahate

Etchekanderek aisa kozinatzen dute
Hain gormantak ginela ez zinuten uste

IX

Atheribe hortaz landa borda bat handia
Behientzat daukagu bordaren erdia
Bertze partean aldiz ardien tegia
Otso tcharra deien lustyrik mendia
Hor iragaiten dute eztiki negua.

X

Bertu han zuretzat gazte eskongaia
Zure etchian bada gauza ausarkia
Zotoan arno hauta ganezian ogia
Yaunatzen chakoan behar den diria
Hauna erraiten dautzut nun egin kafia

XI

Etchekandere bazira hunat yin beharra
Onda mugarik gabe zitazke mentura
Hots zertaz dezakezu izan arrangura
Sukaltzat badukezu abarra egurra
Etchorratatik ehoritchtan behar duzun ura

XII

Ber gisa o yin daiteke erre araguia
Erranik dugun plantan baita etchaldia
Oihanetan badukezu ausarki su gia
Mendietan zabalik iratze lekhia
Bai eta ber tokian behar den othia.

XIII



Lekua den bezala yende hoberena
Dantzarick gutichko, itzal handiena
Yorrek batere ez du mendratzen gizona
Berdin merkorik dugu segur espartina
Eta hobeki zaintzen XIV Yaunaren eguna

XV

Erre kartierrd onari eman tut zenbait lhiz
Eskualduna kargatzen guziez gorantzia
Ez nabila nor naizen hemen erran nahiz
Elizari yarraikiz girichtino biziz
Yerurat hel gaitezen guziak. Agur bitz

[illegible]

## Ziburutik Sarara.

I

Ziburutik Sarara izatu naiz yuana
Neure lehenagoko ukaite baten gana
Han arribatu gabe entzun nuen fama
Guarda gazte batekin zela ezkontzena

II

Guarda gazte horiekin konfidatzen denak
Ardura izanen du bihotzian penak
Andriak nahi ditugte gazte charmantenak
Atrakasta guti du zahartua denak.

III

Zuk hamazpi urthe nik bertze hainbertze
Amodiotan giren ginelatik gazte
Zu malzian zinela nik ez nuen uste
Neure pena changrinez zu contsola zaite

IX

Etzaitela changrina oi guarda gaztia
Sehey izana gatik ni zure maïtia
Zapataion bati diot ideki athia
Adios sekulakotz lehengo maïtia

V

Adios erranikta nauzula kitatzen
Etzauzu eni bezala odola kechatzen
Sekulan denoltan banauzu aïphatzen
Sujet berri batzutan laster da izaner

VI

Soale zindakotz zinen lokhartu
Zertako ëtzinuen athia gakhotu
Zetarik bazaituzte gaichoa tronpatu
Demborak behar ko du kolpia sendotu

VII

Hitza atchiki zinautan fidelik botz urthez
Kontsolatzen ninduzun urrundanik letraz
Orai bazabiltza ni utz eta bertzez
Ez bide ninauzun maithatu bihotz ez

VIII

Liburu hortan bada neskatcha pollitik
Zu dendari gaztia oroen gainetik
Abandonatu nauzu maithatuz geroztik
Mundu huntan ez da zu bezen ignorantik

[signature]



## Sujet eder bat

I

Sujet eder bat declaratzen dut gaztek
etsemplu hartzeko
Amodioa zoinden lanjeros gazterik
hari lotzeko.
Zortzar eder bat kantatu nuen ene
besuen arteko
Behin bihotzian sarthu zaut eta ez da
atheratuko

II

Amodio berri hori gaztentzat chorrogaria
Hamar urthe komplitu gabe emanik
nuen fedia
Geroztik bethi gomendatzen dut
zeruko Jainko handia
Haren baithan emana nuen confidentzia
guzia

III

Amodiorik ez duenak duenak penak zer
dire ez daki
Ni gaichua aspaldian atakatzen
nau azkarki
Ene maitia kontsolatzeko ez ardura
nahi ikhusi
Zu bichtan gabe mundu huntan
ez naiteke luzaz bizi

4.

Ene maitia arrazoin duzu ezgiza
bozaz biziko
Behar baino zazpi urthe lehenago
thombay sartuko.
~~Eneki enneki~~ Denboraarekin ez othe dugu lan hori
ahalatuko
Menturaz oraino zure aita gutoz da
urrikalduko

5

Zazpi urthe phasatu ditugu biak
elgarrez agrados
Gero laster trichtatu ginen aitaneck
Yakinez geroz
Amodioa gauza handia diruz ezin
daike eros
Hori dela medio gira biak bethikotz
maluros

6

Zure aitaren ganik ez nuen ez nik
hofakorik merechi
Zeren zaitudan guzietarik espos
laguntzat behdi
Desterraturik igortzen naute zure
menetik ihesi
Zure ganako amodioa nahiz arras
utzarazi

7.

Despegidarik ez diot eman maitia
zure ahalgez
Maite nauzula ez dut dudarik zure
aita - ameri phartez
Dudarik gabe ez tzinen kontent gure
arteko manerez
Changrin handietan bizitzeko sortuak
ginen orabez.

8.

Phartitze hunetan abiatzen zaut bi
begietarik nigarra
Adios beraz sekulakotz ene bihotz leiala
Apaintziatz etzinen zu enekin bizi lekharra
Yaun Zerukoak hauta dezala zuk
behar duzun senhara

9

Ez ahal zuhazi ene uztera zazpi
urtheren burnay
Zure manerak biek elgarri declaratu
ondoan
Yakin zazu ez dela fede ukhaturik
sartzen zeruan
Zutaz bertze espos lagunik ez dut
harturen munduan

VII Fidelitate handian birjinitaten handian
Berthute hori begiratu dugu gure
acmboa guzian
Okhasionetik ihes eginik ahal bezembat
mundian
Eternitatean louis nahiz hil eta parabisian

Ezkondu eta donadoa.

I

Adizak ezkont gaia bi solas ni ganik
Conseilu on han hartzak ezkondietarik
Gizonak izaitekotz yitun deskantsurik
Yazteriak familia formatu behar dik
Zahartuta ez dadin egon dolutarik

II

Zuen konseilu onari hamen nago irriz
Donado gelditurik arras kontent bainiz
Ikhusirik penatuak yirestela ainhitz
Miseria gorrian haurrak ezin haziz
Jainkoari eskerrak hortarik libro niz

III

Ez duk bada hobia donaduen planta
Yoventutan sarthurik oz hadita benta
Hik ere izanen duk noizbait zerbait falta
Etzakala sobera bitoria khanta
Donaduen zahartzia arras trichtia baita



IV

Trichtia dela diozu gure zahartzia
Zuk ere ez dukezu mila alegrantzia
Guzick badakigu zerden ezkontzia
Gizona gaztedanik esklabo hartzia
Gure gostuko hori ez da zuzentzia

V

Gur' esklabatatiaz trompaturik hago
Huk manatzen dituk familiaren oro
Andre eta haurretarik badituk frango
Eta gelditzen denak beldurrez donado
Harek bizi behar dik guzien esclabo

VI

Guk ere ikusten tugu yaunazuen faltak
Ez gaitu ilusitzen ezkonduen plantak
Haurrekin lana frango amak eta aitak
Batek chapela falta bertziak zapetak
Ainitz aldiz behar du izertu kopetak.

VII

Gurayo ona daukak donado gaizuak
Haurrak ez nahiz hazi hola geldituak
Orai hirekako dik etcheko zokhua
Eskarnio frango maiz eskar gaichtoa
Ulando tzarra bezela bethi tratatua

VIII

Yauna etzazula egin sobera espantu
Zahartziak norbaitentzat deus onik ez baitu
Ezkontzen denak ere ondorink baitu
Yiten diren bezala behar ditu hartu

Jainkoak daki zu ere etziren tronpatu

IX

Gure penek baitie oudontik plazerrak
Efek egin tugun fanak ez ditek alferrak
Zagartziazen fadatzeko badittek haurrak
Lagunduko ahal tie beren aita amak
Ikhusiz hein hazten egin tugun lanak

X

Ustetuke zarela solera fidatzen
Ainhitz ikhusten dugu munduan tronpatzen
Belek erreditazte beren umiak hazten
Gero umek aneri begiak efalitzen
Ainhitz ezkonduneri hori zaite gerthatzen

XI

Hori egin baleza semiak aitari
Zer egin lezake ilobak osebari
Haurrak ez jakiz bazi gelditu denari
Ttipiek eta handiek eiten dien t irri
Deneri esku makhiltzat behar baiz ibili

12

Zuk ere izanen duzu zerbait arrenfura
Etzira ez bizitzo nahi duzun gostura
Zeere haurren haurren zain egon beharzira
Nahi ez duzun pacientak izanez eskura
Gezurdako zerbait sortzen da munduan

13

Sinhesten ahal dituk gure kontseiluak
Deus ez dik balio donado izaitiak



Gizonaren eginbideari ihes egitiak
Aiti ez emaiteagatik Jainkoak haur ttipiak
Dolruak emanen dauzkik iloba handiak

14

Ichildu behar dugu aintzina juan gale
egelditurik zoin gure arrozain jale
Bethi danik izan dut berthutia maite
Ehun mila kontseilu zuk emaiten ere
Sekulan ez naiz izanen ezkontzaren alde.

15

Kantu hauxen emailia izan da donado
Ongi pholetchatuz ilean ezkondu zen gero
Aiteitu emanen dituz berri horiek oro
Dakienik balinbada zerbait gehiago
Hainbat paperian bada leku frango

Biba Frantzia

I

Nola guk erran, egun, Frantzia
gu hire haurren alegrantzia
Aita ginion hitzez eta
etsaiek hiltzat utzia!
Hek chorgatuik odol guzia
aphal hindagon ez erroia
Ahaltiter baihaiz, orai Herria
biba, bai biba, Frantzia.

II

Abrthe gutix du, illun batez
lo zagolarik ber'chantzean
Arrano bati lotu zirela
berrehun bele batean
Bentzutu zuten, ezin artliki
hoinbertze etsai beltzen artean
Hegal bat ere kendurik utzi
Halere dabil airean

III

Orai ikusiz arrano hori
ez duela hil heien kolpeak,
Balaan goratuz doala bethi,
ikharan daude beleak!
Demborarekin arrano horrek
izanen ditik egun hobeak;
Ethorriko duk bertzen orena
....., ezen baditik uneak!

IV

Frantses herria, halere laster
goratuko da lehen bezala;
Nork aungri bai ekharriko
belek ebatsi hegala?
Indar guziak betan ezarriz
nork erranen du gure aftala?
Frantses guziek elgar aditun ...
Jainkoak adi nezala!?!

Elissanbur...

Gau-beilaria

Ic

66

# Hiritara eta campañatara

I

Gizona zoin maluros den campainian
bizi dena
Hirirat juan bedix uros nahi dena
Han dire munduan diren gauzarik
ederrenak eta agradablenak
Hango libertimenduek ahanztaraztan dituzte
penarik handienak (bis)

II

Eni etzaut agradatzen egoitia hirian
Zeren sortuz geroztik bizi bainaz mendian
Bizkitartian iduritzen zaut hambat uros
naizela neure heinian
Nahiz ez dudan hambat argitzen neure ardien
erdian (arropa charrak soinian) bis

III

Zuk bekin ikus bazineza ene jauregia
Negozio handietan naiz empleatia
Hiri guzian bakarrik ni naiz aipatua
eta ohoratia
Printze handi bat bezela orotan salutatia
eta maitatia / bis.

IV

Nik ez dut mendi gainean zuk bezembat
ohore
Pobrea naizela aditzia etzaut ez
deshohore

7

Zure jauregi ederrak ez dut jelosik batere
ez eta nahi ere
Borda chara izana gatik sanoki bizi gare
(nehor behatu gabe) bis

V

Aberatsik ez baliz nola bizi pobreak
Miseriak gorrian zindaizkete guziak
Artzainek zeren dituzten zikiro eta ardiak
bertzenak ordiak
Balituzte bertak heien larderiak
(ez litezke ttipiak) bis

VI

Aberatsek ez dute ez artzainik hazten
Zeren beren lanetik aski baitute irabazten
Gure ardien ordien bila nehor etzauku
jiten guardia tronpia etzaiten
Komertziantek bezela ez fortunarik
jaten (ez bankarotik egiten) bis

VII

Ene bizia zurearekin ez daiteke konpara
Yanari fiantak jatera arnoona edatera
Hola bizidez gizono bihotza alegera
doha libertatzerat
Carrosan sartu eta sozietatera
(ganaren pasatzerat) bis

8

Yanari friantez ase-ta biharamunian
Ohetik ezin jelkiz ardura min burian 68
Eta sanoki bizi taluan eta esnian
janari onian
Arratsetan kartetan bordan artzainak
(elgarrekilan) bis

9.

Gauño bat nahi nuke pasatu zurekin
Kartetan nola az ez zaitezten artzainak elgarrekin
Betze bibertimendurik pasatzen da
gure gizon eskolatiekin
Prinzipio handirekin puchantzia ederekin
(mintzo gira elgarrekin) bis

10

Eskolarik ez dauku guri eman Jainkoak
Inda gabe behar zituen gu bezalakoak
Kartetan ez dire finitzen gure libertimendu(ak)
eta gostuak
Jauchikuak emaiten ditugu igandetan
muchikuak (eta fandangoak) bis

11

Erreposturik ez duzia gehiago emaiteko
Uste nuen ou zinela oraino mintzatzeko
Miserablien herrunkan zuk ni ezartzeko
etzaut ez ahantziko
Betisautek zaitu oraino arzainak baino
(lehen atakatuko) bis

69 12

Holakua izan da gaurko gure asanta
Erreposta emaiteko ez bazirodaizko ausarta
Laster itzuli zira aberats fuchanta
Hiri guziaren aita
Zure bauitatia orguluz artzia baita
(nik ez dezaket maita) bis

Hamar manamenduak

Hauna pertan berriak nik oraino paratu
Amar manamenduak nola gobernatu
Lehentabiziko horretan Yainkoa maitatu
Lagun proximoa ere igual estimatu

2

Bigarren manamenduan yuramentu guti
Nahi denaren emaitera mihia ez utzi
Ez da ba da gauza hortan diferentzia
Zerurat igan edo ifernurat yautsi [guti]

3

Meza saindua entzun hirugarrenian
Obligatuak gande igande egunian
Obra onak eginez gero ahal denian
Gloriaz gozatzeko eternitatian.

45 (voir Numero suivant)

Bortzgarren manamenduan nihor ez itzia
Zer gauza gohorra den oi! heriotzia
Eskiduru Yainkoari erreferatzia
Zeren guregatik baitu arthu kurutzia

54 79

Laugarren manamenduan gure burasoak
Ahal dugunaz sokorritu ez duten gaizoak
Ein ahalaz eginik ere ez dire pagatuak
Urrikaltzeko dire eyon trabailuak

6

Garbitasuna beira seigarren hortan
Gogoz, itzez, obraz eta solas lizunetan
Kasu egin dezagun manamendu hortan
Tentatzioneak kardura dira mundu [huntan]

7

Zazpigarren manamenduan deusik ez ebatsi
Nor berearekin pasa, bertzenaz utzi
Debruak laguntzen gaitu egiteko gaizki
Atsemaiteko sareak edatuak dauzki

8 [dugu]

Zortzigarren manamenduan hau egin behar
Falsu testamoniorik nehori ez kasu
Yuramendu gaichtoik egiten badugu
Egun batez kondu eman beharko dugu

9

Bederatzigarrenian ez dago bertzerik.
Ez desira bertzeren senhar emazterik
Bertzen odolean ez arthu parterik
Atruna gaichtoak izan ez dezan kalterik

10

Izena dut Estebe, deitura dut Landa
Kantu hauk eman ditut gogoak emanta

Maitea ez aski bertzerik da falta
Bizian segitzia eta hil'eta zerurat
(goit

Argia dela diozu
Argia dela diozu
Gauherdi oraiñ' ez duzu
Enekilako dembora
Luze iduritzen zauzu
Amodiorik ez duzu
Orai zaitu ezagutu

II

Othia lili denian
Choria haren gainean
Hura handik partitzen da
Berak plazer duenian
Zure et' ene amodioa
Hola dabila airian

III

Partitu nintzan herritik
Bihotza ~~alegerari~~ alegerarik
Hara jin nintzanian
Nigarra nuen begian
Zauze. Zarnezazu sahetsian
Bizi naizeno mundian



Izarrek distiratzen
aire (bili bat ikusi nuen)

Izarrek distiratzen zeru zabalean
Zoin ederrago diren ilhun nabarrean
Bat da charmagarria laguneen artean
Laster baitzerant sartu barna bihotzian

2

Izar eder pollita nauzu liluratu
Irriño batez nauzu, oi zureganatu
Zure begi pollitak zer indarrez g'tu?
Behako batez baitaut bihotza kolpatu

3

Ezagutzak eginik hamar [illegible]
Geroztik iraganak zonbat egitate
Orai dautzut egiten ene amorez parte
Jakin dezazun zonbat zitudan nik maite

4

Atsetirian jausten da zerutik ekhia
Nik orai behar dautzut aithortu egia
Zure aldeako dudan ichur[illegible]
Nihaurentzat gorderik ez iñ dut atchikia

5

Ene amodioari ohartu zirenez
Ez duzu erakhusten ichilik egonez
Bainan zure gaintak hain nasai ~~ikhus~~
ukhanez
Nola dezaket duda, oi maite nauzunez

71 73/

Lore maite pollita, egia erteko
Jainkoak egin gaitu elgarrekilako
Bertze izar guziei egiten dut uko
Zu maitatuz bakarrik, bethi bizitzeko

# Table des matières


| Nombre | Table des matières | pages |
|---|---|---|
| 1 | Kafettaa Semenarioan | 1 |
| 2 | Sidur. Luze. | 2 |
| 3 | Tip' eta Tin | 3 |
| 4 | Gilen | 4 |
| 5 | Itsasturi gaztea | 5 |
| 6 | Nere makila | 7 |
| 7 | Zariourketaria | 8 |
| 8 | Bizkaiburuko Ekemartin | 11 |
| 9 | Egungo moda | 13 |
| 10 | Ebaubadin | 15 |
| 11 | Kanthatzera nihazu | 18 |
| 12 | Ouné chiné | 20 |
| 13 | Amoaren alde | 21 |
| 14 | Ni haurtzon nizanen. | 22 |
| 15 | Juanden larumbat aratzian | 23 |
| 16 | La vie du Séminariste. | 24 |
| 17 | Amodioa | 33. |
| 18 | Donadoa edo muthil zaharra | 34 |
| 19 | Gerla | 36 |
| 20 | Campaguatarrak | 38 |
| 21 | Neure kartiera | 39 |
| 22 | Ziburutik Sarara | 42 |
| 23 | Sujet eder bat | 44 |
| 24 | Ezkondu eta donadoa | 47 |
| 25 | Biba Frantzia | 50 |

